



Esperanza y Cía." arma fabrika (Markina - Xemein)

Fabrika hau Markina-Xemeinen 1925ean jarri zen, herriko udalak Juan Esperanza Salvador (Huesca, 1860 - Bilbo, 1951), fabrika honen sustatzailea, udalerrian koka zedin animatu zuenean, pabilioi berriaren erakuntzaz eraginda. Alabaina, enpresari honen jardueren jatorriak Gipuzkoan daude, Eibarren fundatu baitzuen Esperanzak berak, Pedro Unzetarekin batera, «Esperanza y Unceta» firma, 1903an. Handik urte batzuetara, 1913an baltzua Gernikara lekualdatu zuten. Bere izaera ekingarria garbi frogatu ondoren, beste enpresa batzuetan, hala nola, «Joyería y Platería de Guernica, S. A.» edo «Industrial Vizcaína, S. A.»n parte hartuz, Gernikako industria hura utzi zuen, Markina-Xemeinen abentura berriari ekiteko. Aurretik, ordura arte desagertutako *Alkartasuna* fabrikarena izandako *Alkar* izeneko pistola baten fabrikazioaren patentea erositako zuen. 1929tik aurrera, ekingarria bikoitzeko *ECIA* pistola automatikoaren eta izen bereko fusil metrailadorearen produkzioan espezializatu zen, berrogeigarren hamarkadako urteetan morteroen prestakuntza eta merkaturaketako enpresa espezializatu modura finkatu zen bitartean. Pixkakako hazkundearen emaitza hizpide dugun higiezinak bai alboetatik bai atzealdetik jasandako hedapenak izan ziren.

Castor Uriarte, sustatzailearen suhia izan zen eraikinaren egitasmoaren egilea. Gernikan finkatuta egon zen arkitekto honek Markina-Xemeinen beste obra batzuk ere proiektatu zituen. Ikuspegi askotatik, *ECIA* fabrika Bizkaiko arkitekturan 1930etik aurrera eragina izaten hasi zen arrazionalismoarekin lotzen da. Garai hartan, gure arrazionalismoak Mugimendu Modernoak iragarritako planteamenduetako asko bereganatu zituen, hala nola, bolumen garbiak, konposizio horizontaletako enfasia, alaka zein biribileko fatxadak, angeluzko garapenen kaltetan, bao jarraitua, terrazetako erremateak, apaindura gutxi, hodizko eskudelak terraza eta leihoetan, sarraila geometriko eta errazen diseinuak, oso

Hau guztia, hein handian, *ECIA* fabrikaren nabari da, osagai horizontal sendoz pentsatutako higiezina baita, gainera, hutsarten formatu etzanak eta erlaitzen garapenak, hegal handikoak, eta ageriko adreiluzko inpostako hainbat lerro egoteak areagotutako bolumetria, hain zuzen. Norabide beretik garamatza fabrika zahar honen apaindurarik gabeko izaerak, non elementu aipagarriak ia ez dagoen, fatxada nagusiko lehenengo solairuko erdiko leihozarraren alboetan dauden zutabe-erdiak ezik, zeinen erremateak apainduraren ukoa indartzen duen, buruan kapitel modura faxa xume batzuk besterik ez baitituzte. Jatorri berekoa da atariaren zoruaren zein aurrealde nagusiko paramentuetako batean ageri den merkataritzako markaren grafismoak bera (*ECIA*), bere forma biluzi eta geometrikoetan oinarritutako diseinua ortodoxia arrazionalistatik zorroztzenarekin lotzen baita.

Mugimendu Modernoaren arkitekturako beste prototipo elementu batzuk teiltatuak terraza modura jartzea, urmaelaz, eta balkoiak karela hodi horizontal soilez diseinatzea dira.

Planteamendu hauek noblezia eta dotoretasun bereziko obra bat sorrarazi dute eta, horrek zerikusia dauka, ezberrik gabe, *bow-window* modura fatxada nagusiaren muturretako

batetik irteten den behatokia bezalako eremu batzuen erritmo kurboarekin, higiezinaren ondoko patioarako sarrera mugatzen duen takila zahararen gorputzarekin, edo eraikinaren sarreraren alboetan dauden paramentuen garapenarekin.

Zehar-saiheska jarritako ageriko adreilua sartzea Espainiako arkitektura arrazionalistako *adreilu-zaletasuna* esan zaionarekin lotzen da, horrela, gehiegizko soiltasunetik eta apaindurarik ezetik ihes egitera jotzen zuten *Art Décotik* gertuko planteamendu estetizista batzuen eragina jasoz. Hartara, gainazal lauekin batera entokatutako ezaugarrikoagoak diren beste batzuekin aldirkatzen dira, batetik, fatxadak testuren eta kolorearen testurekin animatzeko eta, bestetik, erritmo etzanaren erabateko nagusitasuna hautsiko duen tentsio bertikalen bat sortzeko asmoz, *ECIA* fabrikaren material hori sartzeak estiloaren berezko lerro horizontalen eraketan sakontzen badu ere.

*ECIA*k 1994an itxi zituen atea. Egun Lea Artibaiko Institutu teknikoaren instalazioak daude han.

Testua: Garbiñe Aja Santisteban.



"Esperanza y Cía." arma fabrika

Markina-Xemein. (*Xemeingo Etorbidea*. *Xemeingo elizaren eta Patrokua jauregiaren ondoan dago, Markinako erdi gunean*).

Bisiten ordutegia:

Lan orduetan ikus daiteke. Egun Lea-Artibaiko eskola teknikoak dago han.

Inguruko beste leku interesgarri batzuk:

(*Markina-Xemein*)

- Jasokunde Andre Mariren eliza
- Hilerria
- Patrokua jauregia
- Arretxinagako San Migel basiliza
- Barroeta dorrea
- Antxia dorrea
- Ziortzako monasterioa.
- Markinako monumentu multzoa